

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

177n. Zenbakia Irailla  
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ESTIBALIZ'KO ANDRA MARIA  
ARABARREN ZAINDARIA**

## "ASIER BELTZE"

Erromatarren denborako arri landua.  
Ba-dira Euskalerrian orduko erromatarren jainko-txikien zenbait berri: Dai Manes, Tutela, Ninfae, Ceres, Marte, Venus...

Oien artean, AHER BELTZE.

Beste guziak erromatarrak izango dira, baña au euskaldun utsa degu.

\*\*\*

Antxiñako erromatarren aztarnen ondoren omen dabiltz egun auetan Irunen. Ta erromatar porturen batekin topo egiñ omen dute.

Portu ori orduko OEARSO izan omen leike.

OEARSO istorigilleak aitatutako erromatarren uri bat zan Euskalerrian. Oiartzun ote zan.

\*\*\*

Gatoz berriz ere gure arira.  
AHER BELTZE (H ta guzi) euskalduna da.  
"H" ori latinez "K" zan ta orregaitik AKER BELTZE irakurri genezake AHER BELTZE'ren orde.

\*\*\*

AKER BELTZA, euskaldunen jainko-txikia.  
Zugarramurdiko joera... Batzarrak... Gaberdia... (ollarrak jo baño leen). Illuna... Arpegiak mozarroz jantziak... Argi sikodelikoak... (azufre, ikats, bale-koipe, piñu-zuzi...) Keia ta alkar ezagutu eziña...

Amaitzeko, AKER BELTZA'ren agurra.  
Arginabarrekin, kanpora...

\*\*\*

Erromatarren erriak domatzeko xistema: indarra ta bigun-geria... Biak naastean.

Errietako jainko-txikiak on-artu; baña, aundirik, ez...

Askatasun bideak itxi ta askatasunkerien bide-txigorrak iriki...

Euskaldun buruzagien semeak latinezko eskoletan ezi ta onorez bete...

Makurgaitzak, ordea, oinperatu, zigortu ta birrindu.

\*\*\*

Zabarkerirako bideak zabaldu...  
AKER BELTZA aldarean jarri...  
Berau gurtzeko askatasun guziak eman...  
Zugarramurdiko kobak ugaldtu...

Orra erromatarrei bildurrik ematen ez zien jokabideak!  
Ondo zekien aiek, orrelako bidetik etzuela erriak bere askatasunik lortuko sekula.

Lortu ez, baña, gogoa bigundu, askatasun ustelez ase, indarrez jokatzeko norbere-burua domatzen auldu... Aizkenerako, denak bertan goxo, basatan txerriak etzanda lez... Iñoren morrontzarako aukerakoak...

Hercules indartsua trikot egiñean...

\*X\*

Erromatarren agindua:

"Jaso Euskalerriko bastar guzietan AKER BELTZA'ri elizak. Ugaldtu dedilla askatasuna AKER BELTZA'ren koba-zulo illunpe oietan..."

Gaztediak:

"Arren! Amen! Amen!".

"Gora AKER BELTZA'ren askatasuna...!".

"Goraaa...".

X\*\*

Gero... euskaldun guda-mutillak, erromatarren Legio baten menpeko zirela, Inglaterrian ikusiko ditugu, beren askatasuna defenditzen zuten inglesen aurka...

ANES LAZKAU'KO  
1974

## BASETXEA

Oroimenez beterik ikusten aut dardaraz sortetxe maitea;  
Ire orma zarretan artu joat arnasa adorez betea.

Ire urte zar aña...  
bizia kendu nairik jabilatzak otsoak:  
Semerik oberenak, ortxe, sortu ituan baso arnas otsak.

Eguzki printz ederrak argi gozoena letz eldu jat goizian;  
trumoi ta oiñeztarri, zer jabilk. gero. goian, asarre otsian...?

Mendian ago bakar, ortzira begiratzen, lurra dok ain eder...  
baiña bakardadea, gau izarrez jantzi dok, biok ez gaizan ler.

Ixiltasun bakea sortu dok zelaietan nere ameslari;  
ez joat nai gudarik... betor aize egoetan kukua kantari.

Baserrietan jagok urte askoren gatz bizira begira;  
aritz sendo gogorrak maite joek etxea gau izar argira.

PAULIN

---

# FORONDA TA SONDIKA

---

## IBILTARIAK

Ibiltari biurtu gara aspaldion, batzutan bear-izanak eraginda, beste batzutan barruak eskatuta. Len lanaren billa joaten ziran euskaldunak Ameriketara eta orain ezkon-barriak joaten dira Karibe-aldera, ezkontza-oste-ko ibillaldia gitera. Eta nor ez da joaten gaur Txina'ra edo Afrika'ra edo urriñeko beste tokiren batera?

Eta ibilli-bear edo ibilli-gura au udan aunditu egiten jaku. Gure itauna ez da izaten: Non egongo zara oporraldian? Ez, beste au izango da ziurrago: Nora zoaze oporraldian? Bai, joan gin bear da, ba-dirudi geure etxean ez daukagula bear dan beste atsegin edo poztasun.

Geienetan, gaiñera, ez doguz artzen ibillaldi laburrak, bide luzeak egin nai doguz, gero andik etorten garanean, geure laneko lagunai zer esan euki dagigun. Olako ibillaldi luzeak egin ondoren, nori-esanik ez ba'geunko, nire ustez, ibillaldi gitxiago ta laburragoak egingo geunkez.

## ZARATEA

Ibillaldi luze ta arin orreik egiteko, egazkiñak artu bear izaten doguz geienetan. Bizkaitarrok or daukagu Sondika'n gure egazkin-zelaia. Oraintxe dabiltz, udaladrian izan be, zelai ori eta or diran urtenbideak zabalitzen. Txori-Erri'tarrak len zarata aundia izan ba'dabe, oraindik aurrera aundiagoa izango dabe. Baten batek esan eban "berari egazkin-zelaiak ez dautsola lorik galazoten". Txori-erri'an bizi ez zalako izango zan.

Egazki-zelaiaren inguruan bizi diranai esker ona agertu bear dautsegu Bizkai'tarrok eta gure onerako jasan bear dabezan zaratakaitik parkamena eskatu be bai. Parkamena eskatu, baiña ezelako damu barik. Orrek orrelan jarraituko dau.

## ARINTASUNA

Ibillaldiak egiteko erreztasun aundiak sortu dira aspaldiko urteetan.

Munduaren edozein lekutan eskatu zeinkez barriak: egakiñen orduak eta edozein lekutako egazkiñean zutzat lekurik dagoan. Beingo baten atzamarrak bizkor dauzan andereiño batek esango dautsu jakin nai dozun dana.

Eta osterak beingoan egingo dozuz, sinistu-eziñeko besteko bizkortasunagaz. Esaterako Benezuela'n apaldu, Madrid'en Goizaldu eta Bilbao'n bazkaldu. Ara zelako ibillaldia egingo dozun gabeko amarretarik urren-go eguerdira.

Ibillaldi azkar edo bizkor orreik ba-daukez euren arriskuak be. Noizean bein entzuten doguz egazkiñen iztripu negarriarren barriak edo albisteak, baiña or goian dabiltzanak ainbeste izanik, ez dira asko iztripuak, lurrean dabilzten berebillakaz jazoten diranak baiño gitxiago.

## URREAN

Arin ibilli gura dogun ezkerro, bearrezkoa dogu egazkin-zelaia urrean eukitea. Sondika'n konponketak egiten diarduelako, Foronda'ra joan-bearra dago oraintxe, eta ara joan bearrean aurkitzen diran ibiltariak, samintasun apur bat agertzen dabe, naiago leukee Sondika'tik urten al izatea. Dana-dala, egiten dan lana euren onerako dala jakiñik, eroapenez artzen dabe samintasun txiki ori.

Berebillakaz be antzera jazoten jaku: joan bear dogun tokian bertan nai dogu berebilla izteko lekua be. Eta berebildunak ainbeste garan ezkerro, ez dogu beti urrean lekua aurkitzen. Ortik asarreak eta ondo-ezak. Baiña nik ba-diñot: Zergaitik ainbeste naigabetzen gaitu berebilla urrintxuago itzi eta oiñez ibilladitxu bat eginbearrak? Eta zergaitik gero, gorputzaren onerako dala-ta, ibiltan gara or bide-ertzetan oiñezko ibillaldiak egiten?

Ez da erreza geure eritxiakaz odo alkartuta bizi izatea. Beti daukaguz atzean geuk be ez dakiguzan errazoi batzuk. Arin egin eta gero astitsu egon urren-go edate-txean, oiñez ibilli nai ez eta gero oiñezko ibilladi luzeak egin. Zeren billa gabiltz?

## MUNGIALDE'KO BERTSO-ESKOLA



*Argazkiaki: ezkerretik eskunrira: Lgotz Zorrozuza, IkerAginaga, BeñatAg naga, Jou Lopategi, Arkaitz Muruaga, Aritz Legarreta-Etxebarria eta Asier Vega.*

Mungian bertso-zaletasuna eskaz egoalakoan, duela urte bi sortu zan Mungia'ko bertso-eskola.

Eguen guztietan batuten gara, Larramendi ikastolan arratsaldeko sei'terdietatik zazpi'terdietara.

Gure maisua gaur egun Euskalerriko txapeldun dan Jon Lopategi da, eta astero ordubeteko saioa egiten dogu.

Lenengo paperian egiten dogu zortziko txiki bat, Jon'ek berak gaia emonda, gero ori amaituta, bardiñ zortziko nagusian eta azkenik ofiziotan asten gara zutunik beraren aurrean.

Argazkitik aparte, ba-gara jende geiago. Esaterako: Bitor Eguskiza, Ibon Zarate, Aitor Azketa eta Asier Legarreta.

Gaztetxuak ibilli dira Pedro Argaluzaren gidaritzapean, eskolarteko bertso txapelketatan.

Esaterako, igaz, eskolarik eskola ibilli ziran aintziñako abesti zaarrak, bertso-jarriak eta bapateko bertso batzuk abestuten.

Azkenik aipatutekoa da, zelan Mungia moduko erri batez azkeneko urtietan bereganatu dauan bertso-zaletasuna.

Or daukagu, San Antontxu jaietan J. Lopategi, Lazkao Txiki, eta Mañukortagaz egin zan erri'ko bertso afaria.

Eta San Pedroetan egin dan bertso-jaialdia; Jon Lopategi, Jon Azpillaga, Mañukorta, Jon Enbeitia, Ireneo Ajuria, Jokin Sorozabal, Xabier Euzkitze, eta Igor Elorzagaz.

Azkenik zera aipatu gura geunke; aurtengo kurtsoa amaitu dogula, baiña nonork datorren kurtsorako apuntu gura badau Mungialdeko bertso-eskolara deitu daiala onako urrutizkin-zenbaki onetara: 4671680 eta Pedro Argaluzagaitik itaundu daiala.

### BASERRITARRA

Adiskide maiteak...  
Gure arbasoen lur  
dozue oinpean.  
Zuen aldarea da  
zelai ta lur landua  
basetxe aurrean.

Oi lur maitagarria...  
Jainkozko jakituri  
al dago zuregan...?  
Zertatik artu dozu  
maitasunaren garra  
lore mardulagan?

Udabarrian zagoz  
lur guztiei begira,  
antziz lerrenetan.  
Bizi barria dator  
oro erne-miñaren  
ezaugarrietan.

Solo, zelai ta mendi  
ikusi izan dituzu  
milla biderretan;  
lora barriak sortzen  
ale gozoak eltzen  
uda gorrietan.

Lurraren jakituriz  
bete jatsu burua  
lanaren aginduz...  
Lur arol, mamin, sendo...  
alderik gozoenak  
eguzkiaz sortuz.

Mendi politak, goian,  
garozko oiak sortzen,  
beien amesetan...  
Zure beso zabalak  
ez eben errukirik  
sega zorrotzetan.

Solozabal'tar Sabin

## IKUSKIZUN BARRIA

Ondiño aldi asko ez dala Aldizkari onetan, ain zuzen be igazko bagillan (164 zenbakian), **Gizakiak egiñiko ikuskizunak** dirala-ta gogoramen batzuk, ekonomi-alde-tik, azaldu genduzan.

Bilbo'ko Euskalduna Ontzigintza-Elkartea aldi baten ain zaratatsu, eginkor eta indartsu agertzen zana, gaur eremu ixilkor biurtu jakula ta osteko ondore kaltegarriak adi-erazten alegindu giñan.

Ba-dirudi, gizakiaren eskua eremu orren itxurea barri-ro aldatzeko asmoz dabillega, orain arte zutunik geratu ziran estalpe ta etxeak, zarta-zarta lurratzen asi da-ta.

Aurtengo otsaillean 20'gn. egunean, Bilbo eta Bizkai guztiarentzat, gertaera negargarri bat jazo zan. Gertaera benetan garrantzi ta ondorio aundikoa naiz-ta ezkorra izan. Ikusmin aundia erne-erazo eban, batez be **Euskaldunan** langille izanen artean. Au dala-ta, inguruetan giza-talde asko alboratu ziran euren antziñako lantegien, atsekabez ba'da be, amaiera ikusi ta azken agurra egiteko gerturik.

Lergai edo dinamita ipiñi, urrundik eragin, eztanda gortugarri bat entzun eta, bat-batean, ke-moltso aundi baten erdian dana lur-jota, zabor-pillo baten, geratu zan.

Urrengo egunean Bilbo'ko egunkari guztietan, argazki nabarmen eta aundiaz apainduta, jakin-erazo euskuen darabilgun gertaera jakingarria: Eun urte gutxi gora-bera ekiñean, millaka langillei jardun-arazoten egon dan ontzigintzaren azkena.

Oraingo eunkadaren aiseran, ain zuzen 1.900'eko jor-rraillaren 3'gn. egunean sortu an; ia ia eun-urte bat dala, len asan dogun lez. Epe onen barruan 350 itxasontzi baiño geiago egin ebazan. Lenengoetariko baten izena **"Euskadi"** izan zan; gero uretaratuko ziran **"Artagan-Mendi"**, **"Gorbea-Mendi"**, **"Anboto-Mendi"**, **"Bizkar-gi-Mendi"** etab. etab. Itxasontzi guzti oneik osotu eben ain ospetsu izan zan **MENDI ONTZI-TALDEA** eta lur-biraren itxaso guztietatik zear ibilliaz, gure aberriaren mendiak eta euren euskal-izeanak arrokeriz erakutsi ebazan. Olan, aldi luze baten, Euskalduna'n egindako itxasontziak Euskadi'ren ordezkari adiezgarri ta gogokoenak izan ziran.

Benetan tamalgarria da mende baten ekiñalean iraun dan elkartea azkenean, eutsi eziñik, gelditu ta kendu bear izatea.

Dirudienez, zaborrak aldendu ta dana garbitutakoan, orain dagozan iru karramarro edo gruetatik bat bakarrik, zarrena "Karola" deritxona, geratuko da oroitzat, **Euskalduna Ontzigintza** or egon zala adi-erazteko. Bere lekuan eregiko ei-da **ERESI ETA BATZAR-ETXEA**; oneri be **"Euskalduna"** izena emongo jako.

Oraintsu urte batzuk dirala, Bilbao'n bertan, **"Etxebarria"** burdin-lantegia egon zan lekuan, ezkurdi edo parke orlegi eder baten erdian ke-zulo luze bat gomutatat itzi eben; orain grua aundi bat ikustean gure ondorengoak jakin al-izango debe **"Euskalduna-Ontzigintza"** nun egon zan.

Au bai au ondamedia! Ke-zulo eta karramarro edo grua orreik, garrantzi aundiko lekuko diran-ezkerro, euren geldi-egote ta ondorio kaltegarrien zioak zeintzuk izan ziran gogorra ekarriko dauskue.

Millaka lan-bide galdu ta ikaragarritzko atzerakada gure ondasun ta langintzaren maillan, orain arte ain nabari ta altsu izan dana: Au da, zoritxarrez, azkenean esan al-doguna.

Gizakia soin eta gogo dan-ezkerro, bai bata bai bestea zaindu ta ezi-bearrean gagoz. Au dala-ta ontzat eta bearrezkotzat artzen doguz **"Etxebarria-lantegia"** egon zan lekuan egindako ezkurdi edo parke orlegia beren zugaitz eta aulki eroak; baita argi-argi dago **"Euskalduna'k"** itzi dauzan lurretan egingo daben **"Eresi eta Batzar-Etxea"** be arrigarria ta erri-jakintzarako onuratsua izango dala. Baiña olako erri-lanetarako dirua bearrezkoa da ta langintzaren ondamedia dala-ta irabazteak gitxitu egiten ba'dira, Gizarte Ongizatea be nekez eragin al izango dogu.

Alkarteen ondamedi oneik Euskadi'n zear sarritan ikusten diran-ezkerro, orrek kezka aundia sort-erazten dau.

Burnigintzan kaltea nabarmena ba'da, beste langintza sailletan be alkarren artean zer-ikusitu estuak izatean bata besteari ondorenak eman eta, kate ausi bat bezela, ainbeste ta ainbeste alkarte-laguntzaille ta baltzu txikiak lan barik geratu, porrot egin, eta ateak itxi bear izan dabez, beste asko egoera larrian dagozan artean.

Zoritxarrez, esan geinke ekonomiko aldakuntza txiro-zaille baten aurrean garala. Burnigintza ta askotariko langintza mailletatik, serbitzu deritxon maillara biderazten asi garala dirudi. Baiña ez dogu aitzu bear azkenean benetako irabazpena egintza edo produkzioan dagola, ta orregaitik mailla oneri eusteko alegindu bear dogula. Orain arte gure ekonomian oiñari garrantziena auxa izan da, ta galtzen ba'da zail izango dake berreskuratzea.

Arazo au erabilatzen dogun bakoitzan, gure kolkorako esaten doguna au da: Ondamedi oneik jazoko ete ziran, iñoren begira egon barik, zuziak erabagitzeko almena ba'geunko?

Betor ba, len bai-len, gure burujabetza.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

## ERRIGINTZA

# AUTESKUNDEA DALA-TA

Joan dan Bagillaren 6an, auteskune barria izan dogu. Alde batetik, Espānako Gobernu edo Jaurlaritzaz eta lendakaria aukeratzeko. Eta bestetik, espānar Legebatzarreko eta Senaduko aulkiak beteko dabean ordezkariak autatzeko.

Auteskunde au ikusmin aundiz itxaroten zan. Baziran arrazoi asko. Bata, P.S.O.E. alderdiaren inguruan argitara atara ziran ustelkerizko gertaerak dirala-ta, ba-zirudian, bere siñisgarritasuna lur jota egoala. Beste bat: P.P.'k, agintea lortzeko gauza izango zala emoten eban.

Azkenean, esaera zarrak diñean lez, ustea erdi ustel. Eta alde-zurretik egindako iragarpenak pot egin eben. Egia da, bai, P.P.'k gorakada itzel bat izan dauana botu-kopuruan, baiña P.S.O.E.'k eskuratu dau agiantea, barriro. Eta batek ba daki noiz arte.

Zalantza barik, Sozialistak euren garaipenaren zati aundi bat Andaluziari zor dautsoe. Lurralde onetan autarki-kopuru ikaragarri bat artu dabe-ta. Baita, uri aundietako langilleena be. Barcelona eta Bilbao Aundian esaterako.

R R alderdiak, bere aldetik, ia ia, lurralde guztietan geiagotu egin dauz bere autarki edo botuak. Naiz eta garaipena lortzeko naikoa ez izan.

Era orretan, alderdi bi onein nagusitasuna nabarmena izan da eta gaiñontzeko alderdiak ostenduta lez geratu jakuz arein aurrean.

Alderdi Jeltzaleak bardin darrai, autarki geiago lortu arren.

Emoitz oneik zer pentsaturik emon bear dautsee alderdi abertzaleai. H.B.'ri, bereziki. Indarkeria aldeztuteak ez daukalako ezelango aitzaki edo zuriketarik. Baita, beste alderdiak be, E.A.J.'k eta E.A.-E.U.E.'k, asko eta ondo ausnartu bear izango dabe euren jokabidea.

Olan, egoera barri bat ikusten dogula esan lei. Lengo auteskunde, alderdi abertzaleak nagusitu baldin ba'ziran, oraingoan, Laterrikoak izan dira boturik geien lortu dabena. Eta orrek, jokera ez bardiñak eragingo dauz, antza, bertoko alderdien aldetik.

Edozelan be, auteskundeak egin barriak doguz eta ariñegi da orretaz itz egin al izateko. Baiña, egoera barria or dago eta bai alderdi garailleen aldetik eta bai galtzaillengandik bestelako ekintzak itxaroten dira.

Denborari denbora emon daiogun eta apurka apurka joango dira gauzak argitzen. Onerako izan daitezala.

Bilbaon, 1993ngo Bagillaren 15an.

MALX-ETXEBARRIA'TAR YON

## EUSKAL-ERRIAN

Gure lurralde onetara etorrita, beste orrenbeste esan bear. Laterri maillan jazo zana, baieztatu zan emen be. Au da, Laterriko alderdiak (P.S.O.E. eta P.P.) irabazle aundiak gertatu ziran, bertoko alderdien aurretik. Onein artean, oso esanguratsua da H.B.-k izandako beerakadea (eskañu bi galdu dauzalako), E.A. - E.U.E. bitik batera jeitxi da eta Eusko



## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

# MARTIN ELORZA LEGARISTI

---

## ARROKERI BARIK

Arroak eta aundi-ustekoak ete gara Euskaldunak? Egoki eta zuzen al da gure eusko seme alabai txaloak egitea eta gora aundiak emotea. Bai, egoki ez ezik, oso bearrezkoa dogu eusko seme-alaba jatorrak ezagutu eta goratutzea.

Gaur eta beti, arlo goragarria da, benetan, gure gizasemeri argienak, euren izenak eta izanak ezagutu-erazo, eta euren barri emotea, batez be, euskerazko aldizkari zelaientan. ZER aldizkariak zergaitik ez dau argitaratzen, illero, euskaldun jator eta ospetsu baten kondaira eta aipamena? Ez al da ori gure erria goratzea?

## MARTIN ELORZA

Nor eta zelako gizona dogu Martin Elorza? Ara emen bere giza-irudia:

Gorputz lerdan eta ederra; gizon adikorra eta etorkorra; ikusmen sakona eta zurra; izakera eta egikera guztietan zintzoa eta zuzena: Jainko zaleatasunean eta legean guztiz zeatza: biotz bigun eta odol garbikoa; Pasiotar leiala ta santua.

Nun jaioa dogu gizon aipagarri au? Azula baserria Elgeta'ko mendi gibelean dago. Eguzki dizdiratsua mendi gainetik gora ta gora doan lez, gure Martin be gora ta gora joango da Elizaren eguzki argi, bero ta ongaria izateko (1989).

Amabi urte bete barik Gabiria'ko Pasiotarren ikastetxera doa, eta eliz ikasteak amaiturik, apaiztasunaartzen dau (1924).

Egizko aunditasuna ez datorkigu kanpo aldetik. Aita Martin'ek, bere barne-muinetan daroa aunditasunaren azia, eta barru-barruko indar eragillea. Ori argi ta garbi ikusten da bere izakera guztian. Au dala ta, andik urtebetara Gabiria'ko ikastetxean zuzendari izango da, eta pizka bat geroago bertako Nagusi.

Aita Martin'ek ikusteko aurrerapena emongo dautso Ikastetxe oneri, gorengo maillan jarri arte. Esan bearrik be ez dago: "Zelako egurra, alako sua". Sua eta garra, gori ta gorri jartzeko moduko mutilla da, izan be.

Ogei ta amabost urtekin Euskadi'ko Pasiotarren Probintzuala autatua izan da (1935). Probintzialik gazteena, orduarte. Garai ontan argitaratuko ditu berak egiñiko "Ratio Studiorum" eta gure Ikastetxeko Araudia.

Aurrerantzean aita Martin gorengo aulkietan izango dogu beti. Ez dira faltako eginbear ontan gurutze aztunak eta gogorak. Bere agintaritzan, aurrez aurrez, agertuko jakoz buru-auste larriak. Naiz eta gudu zakarra mendietan

amaitu, biotz askotan burruka gorriak somatzen dira, ondoren gaiztoenekin: gosetia, alkar aitu eziña, alderdikeriak, arpegi-biko esamesak. Ointxe bai erakutsi bearko dau, eta ondo erakutsi be, bere azkartasuria eta sendotasuna, bere eskuaren zuzentasuna, eta era betera, biotz zabaltasuna. Eta istillu gienak bere onera ekarriko ditu.

## BETI GORA

"Gotzain izan nai dabenak, eginpide ona nai dabe". Aita Martin'ek badau Gotzain zuzena eta santua izateko gaitasuna. Baña ez da iñoiz aundi-zalea izan. Bere izena eta entzute ona egazka dabil eguratsean, udaberriko aize gozo eta biguna lez.

Eta, zer? Deustu'ko gure Batzar Nagusian erabagi auxer artu da: Kolombia ta Peru'ko gure etxeetan Probintzialaren ordaingoa jartzea. Nor izango ete da ordaingo ontarako praillerik egokiena? -Aita Martin (1947). Lurralde onetan dabillega, ara ba, nundik eta Erroma'tik, datorkion Moyobamba'ko Gotzain izateko izendapena (1948): "Itxasoko olatuen bultzada zakarrez ondatua lez geratu nintzan. Zer egiñ?"

Zelan jokatu dau Gotzain barri onek Moyobamba'ko mixio-lurraldeetan? Ara emen, azaletik eta berba gitxitan, bere burubide ta egiteak: Mixiolarien etxea egiñ. Eliza Nagusiaren oñarriak ipiñi eta ekiñ. Errian eta baso-errietan ainbeste eskola jaso. Berrogetaz baselizak eraiki. Bertako semeentzat eliz-ikastetxea zabaldu. Andik eta emendik monjak ekarri. Anjo jente gizajoai lurgintzan eta langintzan ikas-erazo. Jakiña, egite goragarri oneik, Pasiotarren laguntasunagaz.

"Urte osoa baso-errietatik ibillia naz. Eundakak ezkontzak egin dodaz. Autortzak, Jaunartzeak eta sendotzak, millaka. Ogei urtetik gora da emen gotzainik ikusi ez dabela. Gogo beraz ibilli nabil Jainkozko ekiñaldi onetan".

"EZ dau iñork maitasun aundiagorik, bere burua adiskideen alde emoten dauanak baño". Adiskideen alde. Eta, ezezagunak, arrotzak eta arerioak? Jainkozko maitasunarentzat ez dago ezezagunik eta areriorik. Aita Martin'ek oparo emongo dau bere burua ta bizitza. Ez da iñoiz geldi egongo. Anjo kristauen alde muga bako bideak ibilliko ditu, gosez ta egarriz jota, eguzki kizkalgarriaz erreta. Modu ontan erreko da bere bizitza eta lertu bere biotza.

Bai, santu baten moduan bizi, eta santu baten moduan ilgo da 67 urtegaz (1966).

Elgeta erriak eta Azula baserriak ondo merezia dabe, bere omenez, oroitarri bat.

URIGUEN'TAR ZENON

## AMAIERAK OSOTZEN DAU LANA

Bertso barriak esan nai ditut  
Laukariz'en omenean,  
gain eder artan osotu da-ta,  
egintz on bat eleizean;  
ain larri egon kristau etxea  
negar malkoen artean,  
orain pozezka ikusi geinke  
argi txinten printzapean.

Zuekin nai dot ospatutea  
izerdi latzen bustia,  
oroz-goitikan atsegin jat-ta,  
abadetzaren bidia;  
nire agurra artu eizue  
pipia eta koipa,  
alaitasunez ospatu daigun  
Laukarizko eleiz obria.

Gizadiaren semeak gara  
gizonak eta abadeak,  
gizontasuna ta apaltasuna  
bediz euzkoen loreak;  
muiñetaraiño maiteko ditut  
euskaldun erri zaleak,  
baiña apaizak oroz-goitikan  
zarie lagunkideak.

Ezin esan dot nai dodan aifian  
gizonaren ontasuna,  
geiago nai dot. gogoz, maitatu  
beraren edertasuna;  
zuri begira, apaiz laguna,  
urtuten jat biotz guna.  
itz bat bakarrik jatort burura...  
artu nire maitasuna.

Zenbat on garbi ikusi dodan  
erri onen biotzean,  
argiz beterik sartu izan jat  
beren ederra barnean;  
geroztik, beti, begira nago  
samurtasunen artean,  
maitatu nai-ta, lertu bearrez  
on egiñen kurutzean.

Euskalerrria maitatzearen  
emongo nuke bizia...  
bat eta bi ta, iru ta lau ta,  
urtu arterik guztia;  
jakituria eta ertia  
gizontasuntasunez betia,  
zure irudiz arritu dozu  
munduaren arpegia.

Erri on batek gauz asko ditu,  
geiago, Euskalerrriak,  
lur zabal eder, zelai orleiak,  
ta gorantz adi mendiak;  
lagunetara begiratuaz  
gizon zentzundun argiak,  
ta batez ere seme on legez  
abade agurgarriak.

Gora ta gora abestu daigun  
erriaren izenean,  
enda ederraosotu zan ta  
Euskalerrriko lurtean;  
zentzun garbia alde batetik  
sinismen garrez betean,  
aupa gizonak, ernai apaizak,  
euskaldun jator bidean.

### GERNIKA

Zer asmotzar darabilk  
gizon onenen aurka  
il-zarabiotan...  
garunak ustelduaz  
zentzuna galdu al jak  
zorakerietan...?

Zer agiantzen bioatzak...?  
Kristau izen ederrenaz  
gizonak ilteko...?  
Baiña zillegi al jak  
pentsamentu baltz ori  
erria austeko...?

Zerk itsutu au Patxi?  
Orea ez dok lur au  
euzkoena baiño.  
Jatorrizko legean  
semeak landu joek  
betitik gaurdaño.

Pekaturik baltzenaz  
loitzen ausarutu al az  
Ai,! negarren samiña  
iregan elduko jak  
gabaz loturikan.

Goia negarrez jagok  
lurra miñez dardaraz,  
gibela zartautu:  
larri, oi, alarau,  
piztiak orroaka  
azurrak ausita.

Gernikaren azkena...  
Frankotarrak barreka  
erria auskeran...!  
Suaz erre, apurtu...  
amaak uluka negar,  
umeak ilkeran.

Ai nere oldozpena...!  
Arriak kiskalita,  
suak erre ditu...  
Non zagoz euskalduna...  
etsaiak gorrotoaz,  
auts biur al zaitu...?

Ainbesteko obena,  
zelan sortu eiteken  
gizon biotzean...?  
Egiz, gaiztetsiko dot,  
gorrotoaren sua  
ilketa baltzean.

Illintien dardaraz  
besarkatuko zaitut,  
GERNIKA maitea;  
Suz, oroimen garretan,  
kiskali jat biotza...  
ene oñazea...!

Gorbei mendian nengon.  
Euzkadi neukan, aurrez,  
gudaren oiñetan.  
Gernika aipagarria  
bake gozoan egon  
astelen lanetan.

Etsaiaren gogoia,  
zer darabilk iregan  
ondamendietan...  
Burua galdu al jak.  
ala biotza erre  
il amorruetan...?

Ezagutugabeko  
eriotza asi dok  
Gernika gaiñian;  
Burdin... Olio... sua  
gorotoz, gorrituta,  
jausi dok errian.

Jendea arrituta,  
zoratuta lez doa  
suari igeska;  
baiña bidean zear  
egazkin tiropean  
negarrez oiuka.

Munduan ordu arte,  
txarkeriz, etzan egin  
olako ilterik;  
odolaren beroa  
een biurtu al jak  
GERNIKA austu nairik...?

Erri dana sutu da.  
Etxeak jausten doaz  
burdiña azpian.  
Gernikaren azkena  
sortu nai ete dabe  
su-arren artian..?

Ormak zatika doaz.  
Au garraren samiña  
eriotz artian...  
Ainbeste lagun dagoz  
sua darioela,  
intziri bizian.

Arripetik urten nai,  
baiña ezin ibili,  
azurrak ausita;  
ezin etsi bizia  
ta suz inguatirik  
jendea erreta.

Umearen dei miña,  
amaren besoetan  
odol biurtuta;  
amak ez daki zer ein  
arri ta su artean,  
samiñak erreta.

Frankoren egazkiñak  
ez eben armiarik  
suaga garretan;  
erre da ta austu da,  
lotsaz dago mundua  
anaien miñetan.

Bigarren sua dator,  
egitan, gaizkillea,  
errea ukatzen;  
gaiztakeri alena...!  
obena ezarri nai  
euzkoei iraintzen.

Solozabal'tar Paulin



# LARRAÑAGA BASERRIA URRESTILLAN

*(Arri utsez egindako etxea: Errota, ola eta baserri)*

Bada baserri bat Urrestilla'n nekazaritza arloan beste baserri guztien antzekoa; bere egituran, ordea, ez du iñungo antzik. Lenengo etxeak egiten ziran egurrez edo buztñez; geroa egurrez eta arriz; ormaetxeak, alegia. Auekin batera agertuko dira tellaetxeak. Baña, guzti oien barruak zurezkoakdituzu eta egurrezkoak.

Orretan dago Larrañaga baserriaren bereiztasuna; onek ez du bere barruko egituran ez egurrik, ez zurik, ez olik, ez ezer zugaitetik sorturik; barruko bere egitura osoa arri landuz egiña dago: Zutabeak, solairuak, eskillera-maillak eta tellatua.

1531'eko ageri batek esaten dun bazala Larrañaga'n errota bat eantsita, "molino a ella anexo". Garai erneak ziran aiek eta andik lau urteetara, errota burni-ola gertatu zan. Aldaketa au ez zan Urrestilla'koa bakarrik (an bertan baziran amar burni-ola), Euskalerrri osokoa baizik.

\*\*\*

Zerk eragin zuan orrelako aldaketa? Zer orrek, bat izanik ere, bi adar ditu. Zer ori Amerika da. Amerika topa zuten eta Amerika'ra bidean jarri ziran euskaldunak bide bikoitzetik: bata Amerika guztian banatzen zan; bestea, berriz, euskaldunen bide zaarra, Ternua'ra zijoan zuzen-zuzenean.

Terranova'ri Ternua esan oi zioten euskaldunek, bere itz luzeak murrizteko oiturari jarraituz. Balearen ondoren eldu ziran inguru aietara eta bertan bakallaua arkitu zuten itzasoa estali. Baleetan (bakallautan ere bai) ekin zioten, etenik gabe, itxasertzeko arrantzale guztiak ia berreun urteen zear.


Larrañaga'ko errota ola biurtu zaneko garaietan, berreun itxas-ontzi joaten ziran Terranova, Canada eta Groenlandia aldera; baña, batez ere, San Lorenzo ibaiaren kolko zabalera. An dago, goiko muturrean, Labrador eta Terranova'ko itxas-tartea, eta andik sartzen ziran baleak milla kilometroko kolko zabalera. Ura zan tokirik aberatsena eta arrisksuena ere bai. Antxe topa dute "San Juan" bale-ontzia aize-bolara batek ondoratuta. Baita zenbait euskaldunen gorpuak ere lurperatuak edo axalean. Bederatzi edo amar lagunek osatzen duten taldea ere bada; danak alkartuta, bata bestearen beroa billatuko ba'lute bezala...

Itxas-ontzi asko bear ziran Bale-arratzarako eta ez gutxi beselako lanetarako ere Amerika bidean. Barkugintzarako astille-roak sortu ziran ibai guztien egoetan. Barkuak burni asko eramaten du bai iltzetan, bai arpoietan, bai ainguretan eta abarretan. Orretzek eragin zion errotak burni-ola biurtzeari. Larrañaga'ko errota ere, ola biurtzen ikusi degu.

Ola onen xeetasunak ere ezagutzen dira, urteetan zear zeñen eskuek erabilli zuten, zer lan egiten zuten (herreria de desgazar fierros), zer ola-mota zan (izen auek erabiltzen dituzte mota oiek adierazteko: Ferrerfa menor, ferrerfa sotil, fragua eta martinete).

\*\*\*

Indioekin euskaldunak erabilli zituzten arremanak, alde batetik desberdiñak izan ziran, eta bestetik jokabide bakarra eta auxe da: Euren lurrean eurak nagusi utzi zituzten, kolonizatu gabe. Ori izan zan jokabide zuzen bat. Bear ba'da, ez zuten ori



*°Larrañaga" Baserria. Urrestilla (Gipuzkoa).*

gingo indioen eskubideak gordetzearren, eurok an gelditzeko gogorik ez zutelako, baizik.

Udaberrian agertzen ziran andik eta udazkenean alde egin. Bitarte orretan, indioekin arreman onak izan zituzten: merkatu txikiak egiten zituzten kastor-larruen truke aizkora, aizto eta burnizko lanabesak eskeñiz. Baña, Labrador'eko eskimalekin eun urteko gerra zitala izan zuten, udazkenean bale-barku bateko mariñelek bururzagi bateri emaztea arrapatu ziotelako. Arrezkero andik agertzen ziran euskaldunei eriotza emateko prest beti. Maiz gertatzen dan bezala, baten erruak besteek ordaindu bear.

\*Y

Beste indio mota guztiekin an-eman oak izan zituzten; baña, euskaldunen ondoren etorri ziranak, inglesekin batez ere, indioen lurraren jabe egin ziran eta arazo onek ondoren txarrak ekarri zitun euskaldun arrantzaleentzat: Lurraren jabe eginda gero, itxasoaren jabe ere egin ziran. Arrezkeroko burruka luze areek galbidean jarri zuen euskaldunen bale-arrantza, naiz-eta kañoiez armatu bale-ontziak. Aizkenerako, euskaldunek etxera... Indioen lurraren jabe egin ba'lira, bear ba'da, an egongo giñan oraindiao. Baña, gaur lotsa ere izango genduan.

Dana dala eta dena den, Larrañaga'ko baserriak erakusten digu galbide orren señailea: 1675'garren urtean burni-ola berriro errota biurtu. Terranova'ko aberastasunak amaituta zeuden ordurako.

Auxe da gauza bitxia: Larrañaga'ko baserriak erakusten digu gure erriaren kondaira. Bere gora-bera eta aldaketak euskaldunen gora-bera eta aldaketakin loturik daude: Irakurtzen jakin bear.

ARRINDA'TAR ANES

---

## **TXANGO LUZE SAMARRA**

---

Era asko dazauguz geografi edo lurraldeak eza-gutzeko, eta ez dozu eskasena ibilliz lortzen dana. Asmo orri berea emon nairik, urte asko dira Zor-notza'ko andra-gizonak eta gazteak, urtero, uda-aldian atan be, euren lau-bost eguneko ibillaldia dagiela. Olan, Euskalerrria lenengo eta gero España. Frantzia, Italia, ta abar, polito arakaturik daukaguz. Orrela, berba egitean, guzur-zabaltzaille baiño geiago gara egi-esaleak ibilitako lurralde ta tokiak aitatu ta miñean darabilguzenean.

Aurten, igaz, Lurdesera ibillaldia egin ondoren erabagi genduanez, ibilte luze-samurra izan erren, osotu genduan geurea, lau eguneko txangoa Fatima, Santiago, Kovadongako ibillaldia. Ona berau zerbait zeazturik.

Seiretan, eguna argitu nairik, deika neukazan ate nagusian; or zan lau egunez erabiliko ginduzan autobusa, ez aundi ez txiki, nasai samarra. Eta bagoaz kotxea beterik. Erletxetan zear, autopistatik, bizi-bizi argituz eguna, eta gu otoi batzuk egin ondoren, bala-bala indartsu, egingo dogun osterea marmai-gai.

Olan, konturatu barik gara Miranda'n, Pankorbo'n, Bibrieska'n eta Burujula'n giro otz samarra, eta zerbait artzeko, geldi-unea. Ederto etorri jaku. Eta aurrera Burgos uria albora, eskumarantza itxiaz, oindiño erdi-lo daukaguna ain zuzen. Pozez goaz, Simanca, Valladolid, Dueñas, Tordesillas (piñadi batetik igarotean, gomutapen gozo bat) Salamanca laster, Larramendi eta Unamuno'k ainbat urtean euskaldun gazteai irakatsi eutsen uri zabal txukuna.

Gredos mendatea ezker eta Peñas de Francia, eskoi (orain amabi bat urte emen dan Ciudad Rodrigo'tik joan giñan gu Fatimara'ra); Bejar'en bazkaria eta atsedeen-aldia. Extremadura'n sartu gara; eman udalekuak eta kerexaz baterik bazterrak. Gelditzeko diño batzuk. Caceres ez urrin, eta urriño, eskuma aldera, Koría eta Urdes barranean gure antxiñoako Busako bakartetxea.

Azken urteotan oso aunditu jaku Caceres, ona etorri jakuzanak an falta. Batetik bestera ixillik

igaro dogu, bizi gurari biziz agiri jakun aintxiñoako uria Merida ta besteak emengoak dituzu. Beste ekitaldi bat eta Badajoz'en gara, Igarri barik Portugal'en gagoz. Zuri lerden sarrerako uria; zugatez inguruak, mastiak ondo jabonik, bide zabalak... Ara-ona erdi galduz ibilli odoren, ona Fatima'ra eroango gaitun autopista.

### **FATIMA**

Zain geunkazan otelean aparía zerbitzeko. Toki atsegiña; aurrez aurre doguz Fatima'ko Ama eta inguruak. Orduantxe egiten zan eguneroko prozeiñoan parte arte nai, baiña berandu samar, genduan. Nekaturik be ba'gengozan eta lotara.

Urrengo goizean etzan ajerik; goxaldu orduko an zan jentea, ikus-miran, bazterrak zear. Andra Mariaren omenez oraintsu jasotako konplejuan niri eragin eustenak iru oneik izan ziran; Goian eleiza nagusia, ederra benetan, oraintsu amaitua: jente askoren artean meza entzun genduan, gero bazterrak arakatuz; oraingoa izan arren, leengo gauza eder asko daukaz, erretaula, bidrierak, pulpitu bi, autortegiak ugari, altara txikiak, ezker-eskuma guztiz dotorea; bertara igoteko mailladi luze sakon zabalak, eta bean ezkerretik aterpe aundi eroso bertara erromesak mezak esan eta entzuteko. Onetan eta beste zer askotan Lourdes'en antz pizkat agiri da. Toki apaiña eta ederra bene-benetan, ikusgarria.

Gosaldu ondoren geure gauzak artu, otelekoak eskertu ta aurrera. Asko toki ederrean, Andra Mariari azken agurra egin eziñik: beste urte baten ba, ara biurtu bear ei da lau egunerako. Olakoetan bakotxak daki zer agindu ta zer eskatu, barru guztiak ez bait dira bardiñak.

### **SANTIAGO**

Esku-agurka itxi genduan Fatima. Autopistaz, Portugal zearbide ederra beetik gora, eta goiz ede-

rragoa. Ezker-eskuma amairik bako eukaliptus sailak. Bada eukalipturik Portugalen. Itxas-aldeko erri nagusienak, Porto Aveiro, Viana do Castelo ta besteak, naiko aberatsak arraiñez eta industriz, eta turismoz; barrurantz geratzen dira antxiñako errialde ospetsuak.

Or muga Miño. Orense'tik datorren ibai zabal ondoan; leendik be emen ibilliak gera keltarren oroiz beteriko Teklan, La Guardia (Olabide'k emen osotu eban Kempis euskeratzea, urteetan berton bizi izanik). Naziño bi arteko burdiñez zubi luze sendoa Miño gaiñean. Andik laster giñan Vigo'n: emen bazkaria, aparia ta loa. Naiko emengo bertoko itxaso, portu, kale, etxe, mendarte eta edertasunak ikusi, miretsi eta txastatzeko.

Konpostela'n gu urrengo egunean, goizetik. Ate Santutik sartu giñan. Gogo bizi ta itzalez. Jentez beterik orduko eleiza zabal ederra; andik ordu bettera lez meza nagusia; esale eta kantu-erakusle egoan meza ta kantu zuzandaria. Ni burdian eta enparauok zutik. Ez gintzazan txarto egokitu mezari jarraitzeko. Mundu guztiko jentea zan bertan, izlariak iragarri ebanek. Santiago, zapatua baiño izan ezta be, kanpo ta barru jentez, erromesek kuin-kuin; jentea gu lez ase-ase egiñik, kantu, itzaldi ta abar, egiaz aderto; azkenez, botafumeriroz eleizea ta bazter - zoko guztiak lurruntzen ziralara, kantu zoragarria erriak abots batez. Nik sarri gogoratu neban gure erria, gure aurretikoakaz batera.

Bazkaldu eta ondoren. Eleizea ta abar, zeatzago begiratz, Ribadeo'rako bidean. Emen be, urretik eta urrundik, esku-kiñuka agur egin geuntsoan Santiago gure zaindariari. Laugarrenez da gure arako txangoa.

## **KOBADONGA.**

Odei baltzak etozan itxas-aldeetik gu geure gau goitzera orduko. Ribadeo, uri barri bikaina, itxasertz-ertzean, gaur turista asko doaz bertera. Gu be. Gosaldu, argazkiak atera eta Jijon'etik zear Kobadonga'ra. Domekea da. Gora-bera ta biur-une asko bidean zear; zentzuna joan jake batzui baiña Arrionda'tik laster bazkal orduan senera datoz barriro be.

Erri ortan, ez dakit nungo jentez, Zornotza'n igandez lakoxe plazakoa egin daroe. Bitzi-saltzailleak ugari! Ementxe bazkalduko dogu, Kobadonga baiño dozena bat kilometro leenago. Jateko ordu bikaiñean gara. Zer jango ete? Asturiastarrak ez ete gogoko "fabada"? Or aurrez-aurre platerkada gizenak, aste guztian goserik egon ba lira lez. Ba-da emen sabela zegaz berotu!

Ondoren Kobadonga'ra. Koba-zulo gaiñea jentez gaiñezka. Argiak ta lorak ugari, egunero bezela. Agurtza esaten da, gu be "Agur Mariaka". Onetan, tunel baltza igarota, andra gazte bat belauniko datorrela, urreratu jaku, ondoan egokiturik; kezkatu dager. Ordu erdi bat eta guk an izten. Ondoren bardin beste batek be.

Gu muiño gaiñeko eleizazabal-ederrera goaz; igandea da-ta, mezatera. Meza-ostean batzuk Europa'ko Zingiretara igon nai, baiña urri genbiltza denporaz. Eta atx-arteko Amari agurka etxerunzko bidean jarri giñan zazpirak inguruan. Trokarte berdez ibillirik, emen Junkera, eta ezin aurrera egin "korbata" batzuk erosi barik; gozoak dituzu izan be gozoki oneik. Neuri be eskuratu eustesan sorta bi, prallientzat ao-gozagarri urrengo goizetan.

Lau egunez asko ikusi ta ikasi genduan, pozetan genkarzan bioatzak, igarri barik errez bideak, Torrelavega, Moz, Laredo, Oriñon, Isla, Castro... Andik Muskiz'erakoa, bide barritik beingoan iruntsi genduan. Zerbait apaltzeko nik, Castro' n geratu nai; nire erromesak, alan be, etziran sabel-gose, etxe-gose baiño. Gaberdirako Zornotzan gengozan, lo gozotan.

AITA ONAINDIA

>I= >I= >I=

# GURA IZAN ETA EZIN, EGIN ETA ONDATU

Izana eta izenaren gainetik  
gizona/emakumea... gizakia.  
Eta ez dago amarik,  
eta ez dago abirik.  
Ez dago non negar egiterik  
eta... eta ez dago.. zerik!

Mendeen mendeetan,  
iluntasunaren gauean,  
biotzaren beroetan...  
eta nik... eta nik...  
nik txoria neban maite!

Norberarenak egin dauanean...  
ibarren, latsen bakea, ostea.  
Noraezean zagozanean,  
amak umea ilda izten dauanean...  
Ez dago non negar egiterik  
eta.. eta ez dago.. zerik!

Begiak estu-estu,  
agoa leor, miina astun,  
auzokoaren bakean...  
eta nik... eta nik...  
nik txoria neban maite!

Ametsak ustel, amaestxarrak egi,  
ilun-ilun dager.  
Zulo baltza, txori dardaratia,  
esku zimela.  
Ez dago non negar egiterik  
eta... eta ez dago... zerik!

Ezkortasunak gura gauz beraganatu,  
okerkeriaren indarrez,  
txarkeriaren gozotasunez...  
eta nik... eta nik...  
txoria benetan nebala maite!

Ez neban egin gura, baina...  
Ostera... egin, zertu,  
ustu egin neban,... nik neuk!

Zugatzaren gereizpearen izpilu dirudit.  
Ez egoan beste biderik, ez, ez, ez egoan,...  
nire kolkoan!  
Arnasea estuka, bioatza taupadaka,  
ikusmena lausotua... geroaren galbidea.

Eta nik... eta nik... bai, nik txoria,  
txoria maite egin neban!  
Baina, txoriak ez eustan sinistu...  
Lotu egin neban, neure naikeriaz...  
Loitu, ondatu...  
akitu !

Bizitzaren leiotik  
urtenazo egin neutsan,  
NIK NEUK!

INIAKI MARTIARTU  
Bilbon, 1993.eko Bagilaren 10ean.

## BIOTZA APURTU BEAR ETE DAUSKUEN

Galdakao erri euskalduna izan da eta bada ondino, azkeneko ogeitamar urteotan Espaina aldetiko etorkin asko bertaratu arren.

Galdakaoarrekin euren euskal nortasunari eutsi gurean, orain dala ogeitamazazpi urte, ANDRA MARI DANTZARI TALDEA sortu eben. Arako neska-mutil itxaropentsu areek, urte illun areetan, eurek euken zerik onena biotz-biotzez, gurari eta abertzaletasunik orbangeenagaz, emon eben.

Urteak etorri urteak joan, taldea aurrera joian. Lagun barriak etorri eta zaarrek gazteagoei lekua eginez, ANDRA MARI biotzean beti eroiela. Zenbat izerdi, zenbat ordu, zenbat lor, atseka-be, samintasun... zigor jasan bear izan dabez, belaunaldi ezbar-dinetako kideek!

Taldeak, baiña, aurrera egin eban. Geroago eta indar aundia-goagaz. Nai ta bidean batzuk geratu; nai ta gorabeera asko izan. Gaur arte. Gaur egun ezagutzen dogun eran eldu arte.

Euskal Kultura munduan bizi izan danak Galdakako ANDRA MARI DANTZARI TALDEA zer dan, zer egin dauan ondo baiño obeto daki. Azkeneko urteotan Galdakao euskal nortasunari gogor, nekaezinik, nongura eutsi dautso. Euskal Erriari zear euskaldun eta abertzale dan talde au geure nortasuna eusten eta zabaltzen makina bat alegin itzelezko egina da. Atzerriari be, geure nortasuna, geure sustraiak, geure askatasunarenganako gogoak eta geure ikurrina argi eta garbi, iñori edo ta ezeren bildurrik izan barik erakutsi dauazana. Erri bat gareala adierazo eta erri onek bizirik diraualaren ambaxadarik onena. Ainbat lagun, erri errialde, naziño euskal nortasunaren ezaugarriak jakinazo eta erakustean ago-zabalik itzi dauazana. Euskaldunak, euskaldun!

Euskerearen, Galdakako eta Bizkaiko euskerearen aldele eta zabaltzaile sutsua. Euskal dantza, jantzi, abesti, doiñu, musika tresna eta oituren ikertzaile, birreskuratzaile eta berpiztaile sakona, zeatz eta meatza. Euskal Gogoaren berpizkundearen billa dabillena. Gaur egun, iñoiz baiño indartsuago, gogotsuago diarduana.

Au guzti au, irakurle ori, ziurantzean, zeuretzako ez da gauza barria izango. Batez be, irakurleak euskal munduarenganako ardura apur bat erakutsiez gero.

Au guzti au, irakurle ori, galtzeko zorian dago. Kilin-kolon dago.

Au guzti au, irakurle ori, geure burua euskalduantzat artzen dogunok ezin dogu, ezergaitik be, iltzen itzi. Ezin dogu etsi.

IÑAKI MARTIARTU

## JOXE-MIGEL IZTUETA; LAZKAO TXIKI' REN OMENEZ

Idazle eta bertsolari askok idatzi dabe, Lazkao Txiki'ri buruz, eta nik ez deusuet berari buruzko aparteko azalpen sakonik emongo.

Nik Lazkao Txiki ez neban sarri ikusi zuzenean, bai ostera, telebistan, irratian eta "Bertsolari" izeneko aldizkarian.

Entzuna neukan bertsolari aparta zala eta baita txistekontalaria bere. Ori nik neuk pertsonalki egiaztatu aal izan neban, Urtarrilla'k 15ean Mungia'ra etorri zanean, Jon Lopategi eta Mañukorta'gaz batera.

Lenengo tabernarik taberna ibilateari ekiñ eutsoen eta Lazkao Txiki beste biekaz batera animoso ta pozik ikusten zan.

Ordu batzuk geroago, bertso-afarian ain zuzen, makiña bat barre egin eban jentia Lazkao Txiki'k bertsotan botaten ebazan arrazoiak zirala eta. Zer esanik ez, Lazkao Txiki ta Mañukorta txistek kontetan asi ziranean. Kasua da ze!, bukatu zala bertso afaria eta bakoitza bere etxera joan zala, bera Lazkao Txiki danori eskua emonez, eta barriro deituteko esanez.

Andik aste batera telebistako berriak; Lazkao Txiki koma egoera larrian egoala zabaldu eben, eta illabete koman egon ondoren, joan jakun Lazkaomendiko artzaia, bere begi biziekin eta irrifarre alaiarekin. Goian bego!

Mungia'n egin eban bere azken bertso afaria eta bertan Lazkao Txiki'k abestutako bertso batzuek doatsuez:

Erri ontara pozaren pozez  
ni ere etorri naiz aurtan,  
aspaldi ontan nola ez nintzan  
alderdioetan izen,  
arratsaldeon ta jakin nai det  
danok zer moduz zeraten,  
egun alai bat jarri nai degu  
erriko festak baiño leen.

Poza artu det, gazte euskaldunak,  
nik ikusten ditut emen.  
Errira etorri ta gauza ori  
aditzen egon naiz leenen,  
eta gu emen asi gerade  
orain bertsoak kantatzen,  
gure asaben oitura zaarrak  
aurrera bizi daitezten.

Arrats eder bat pasa nai degu  
nola fandango ta jota,  
ardo pixka bat edanda ere  
emen ez zaio inporta.  
Ni gaurko ontan triste bizi naiz  
txatorik (tragorik) eziñ dut bota,  
juandako iru illabetez  
regimenean nago ta.

LEGARRETA'TAR ASIER

### ARIZMENDI-ARRIETA

Jose Maria, zer ikusten dok,  
zer nai dok ire errian,  
zer egin nai dok lagunen alde  
Arrasaten, lantegian...  
zer esaten deuk giza-semeak  
beren izerdi artian,  
zer merezi jok gaurko gizonak  
Jainkoaren izenian.

ondo bizi izatera;  
Jainkoa goian, gizona beian,  
i oa bion erdira,  
zeruetako jakituria  
ekarri nairik lurrera.

Anaitasuna eskatzen jagok  
AITA onena betitik,  
guztiak, bere seme diranez  
maitatzen ikusi nairik;  
bizi guztia ik emon deutsek,  
lan ederrena eginik,

bizitza areek... ik eriotza...  
Jainkoari eskeinirik.  
Mondragoitarrak, pozez, beterik,  
kantari nator bidean,  
zuen apaiza Markiñarra zan  
gogo ta biotz betean;  
Bizkaitik jun zan argi gozoa,  
egi barri usaiñean,  
AITAK esana egitearren  
langille maite artean.

PAULIN



93-1-15  
Lazkao-  
Txiki  
bertso-  
afarian,  
bertsoak  
kantetan  
"Bataklan "  
txokoan.

## BURU-ERAILLEAREN ORDEZKOA

Alperrik zan; edozein alegin gatxa biurrago egitera etorran. Ule eunezko txanoak ez eban ondo estaltzen a buru bilots lotsagarria.

Burua, ametsen ondar-leku azkena, orraztzaileak asteen iru bider luzatzen ebazan ule griña apurrekaz erdi estaldua eukan. An egoan bigirale zorrotz baten eritxiz, kapelari eutsiteko ezker-eskumatara eukazan ule-moltzotxoak indargaltze izugarri bat baiño etziran. Nire lagun gaixoa, beste egunetan baiño artegago ikusten neban. Ontzitxo bete akeita (obeto legoke intxaur-ostoa) zala-ta aurkitzenzan ain errukarri. Geldi ezin egoñik, iezarlekua beti loka aruntz ta onuntz, biribilketa zoroan. Erre, barriz, zigarro pakete bi ordu gitxitan; ori zala-ta konturatu nintzan erdi zorabiotuta egoala, ta arduretan nengoan. Goizean goiz urira eldu izan nintzanetik, bera bakarrik ixteko adorerik eneban izan. Esango neuke miñetan egoala, baiña ez eban esan gura zergaitik. Akeita etxean au ikusita, eskuetan lapitz bat, begiak saltari bizi ebazala, kapela, barriz, alboratua ta zigarro-kondilla, lodi-lodia, ezpan-ertzetik dariola amatauta, bildurgarri egoan.

Orrela angu zerbitzariak, uste onez ta belarrira etxera zergaitik ez naroiari esan eustan (alantxe eskatu neutsan). Esan ta egin.

Etxera?, esan eustan begiak neugana okertuaz.

Ta, nun daukat ba nik etxea; burua iarteko arri bat be eztaukot-eta.

Azkenengo berbok irribarreka esan ebazan, baiña bereala lengo egoera larria io eban.

Zer dala-ta ukatuko daustazu Kristoren itz berberak esateko eskubidea? esan eban. Ez al gara gizonagandikoak Aren antzera? Ez ete dogu guk be sarri beaztun mingotsa arek lez edan bear? Ta egun baten bear bada ez ete naiteke Bera lez zigortua ta samindua izan?

Edontzitik zurrut batzuk egiteko izan ezik bestetarako agorik ondiño ez eban begirale matematikuak iakintzaren aulkian esan baleukezan itz oneik iaurti ebazan niganuntz zuzenduaz:

Ele-ederra!

Nire lagunak ez eutsan erantzun. Buru gaiñeko kapelari ikutu bat egiñaz diadar bat egin eban:

I gazte!

Gorritz iantzitako mutiko ago aundia etorri zan.

Kendela ixotu bat ekarri egik!

Zuzia biztuta, letoizko argimutillan ekarri eutsonean aurrera, agoa estutuaz garraren gaiñean eskua ipiñi eban.

Zer da egiten dozun ori?

Sutatik besoa kentzekoa egin neutson, baiña beste eskuaz geiago egin eustan, ta garraren gaiñean eskua ebala iarraitu eban. Akeitetxeko guztiak geuri begira geunkazan: jabea bera be bai, oso serio, begiak zabalik, zer esan be ez ekiala.

Matematikua erlojuari begiara egoan. Laster eldu iakun erre-sundea. Zalduntxo batzu iagi ta edandakoa ordaindu barik ioan ziran zikinkerri bat zala a esanaz.

Nik neuk beste indarkada bat egin neutson besotik ta kandela amatau. Nire lagunak sur-zapia atara, ta esku baltzitura arekin batuaz abots gorrototsuaz esan eban:

Kirten orri erantzuteko egin ioat.

Ta iagi egin zan. Ikusleen abarotsean akeitetxea itxi ta kaleratu giñan. Baton batzuk ertzaiñari edo osagille bati deitzeko egozan. Andra batek deadarka iñoan: Fakir bat dok, fakir bat.

Uri erdiko kaleak ixillean itxita zubitik igaro ta gure alkar-izketa gozoetarako geunkan menditxo batera igon genduan.

Eleiza nagusia eguzkiaren ikutuak urre gorritan iartzen eban. Eleizako atari nagusian Kristo'ren irudi aundi bat egoan mosaiko eraz egiña, ule baltza ta bere begi zabalakaz aurrean, oiñetan eukan uriari begira goan, Bera aztuta eukan uriari. Baiña araiño ez giñan eldu. Kalea itxi ta orio-ondoan landara egin gendun bidetxior batetik. Antxe landa garbian, oi danez, errepublikatarren lorratz-ondarrak agiri ziran. Gorrago il-erri aberatseko atxurdiñezko kurutzeak. Zugatz baten azpian lepoko gorridun atso zaar bat begirune aundiz orrazketan ebillen, noizean bein orraziari zeazkeri aundiz begiratu bat emonaz.

Gelditu gaiten emen, esan eustan lagunak, ez daukat aurrera egiteko gogorik, ta gaiñera zerbait esan bear deusut.

Bide ertzeko arrietan zelanbait iezarri giñan. An beian bi-dearen biurrunean tranbiek igarotean ataraten eben txirrintotsa entzuten zan, abaiña norbaiti deika larri egoan neskaxo baten diadarrak be. Nire lagun gixajoa orain baretuago neukan, aixe gozotan, toki illun ta itzal aretan. Noizean beinka eskuko erre-zauria ikutzen eban, ta une batzuetan negar-anpulu bat begietan dindilizka iari ezpalitzakion beste donor lakoa zala uste izango genduan. Orain lotsakizun guztia ioana zan. Ule unezko kapela erantzita, arenburu gorritzka bekoki ta buru erdian ule bakoa otkirritan egoan illunabareko aizetxotan.

Ixiltasunean luzaro egonda gero onako itaun au egin eustan: Ba-dakizu noz iaioa nazan?

Ogetamabi urte beteak dozuzana ba-dakit, baiña iaioletza-gunaren barririk ez dot.

Etzi egingo dodaz ogeta amairu.

Berba oneik ixilik esan eustazan, ixil-kontu garrantzitsu bat esan baeustan lez.

Ta orregaz zer diñostazu? esan neutson, biotz-gogorra nintzala agertzeko neukan arduraz. Urteak guztioi ioakuz, ta ondiño etzara zaarra.

Bere begi nabarrakaz nik esanak emon eutson iguiña erakutsi eustan. Ontxe barriz ikusten dodaz lenago ez geroago

ikusí ez nebazan lez. Begietan ainbeste indar eukanik enekian.

Entzun eistazu, iardetsi eustan, zuk eztozu tautik ulertzen. Besteak baiño geitxuago ulertuko zendula uste neban, ondiño be itxaropen guztiak ez dodaz galdu. Azkenengo odol-tanta ixuru arte alegin guztiak egingo dodaz ontarako: salbau zaitezán, aitu dozu?

Baiña argi esan eidak bein, esan neutson erdi asarretan minduta, barritsu baten itz-iarioaz ekin dautsazu gaur guztitarikoak eta edozer esaten, ezer esateko astirik niri emon barik. Len akeitetxean kirtenkeri samingari bat egin dozu lelo bati erantzuteko. Orain ulertu-ezin dautsudana esaten diarduzu. Zer gura dozu? Ni salbau? Nundik? Zelan? Argi egi zu berba.

Entzun eidazu, iarraitu eban abots ixil eta gozoaz. Zuk ondo dakizu maite zaitudana. Gizonetan zugandik bakarrik itxaron izan dot zerbait. Beste iñori ez lez agertu deutsudaz barne-muiñak. Sarri aukeratu zaitut lagun lez, ta ondiño ez zenduzan aztuko nik idatzitako eskutitzak. Azken aitortza au egiteko be zeu aukeratzén zaiatut, ta orretarako gai etzarala sinestarazteko alegiñetan diarduzu. Baiña eztaukat astirik galtzeko ta etzaitut itxiko. Ez uste izan, esakerok illunak eta zoroenak iruditzen baiatzuz be neure burua andi egin guraz diñotzudazanik. Iñoi z egin izan dot ori be, etorria batzuetan onuragaxri da, nortasuna agertzeko be ei da, baiñagaur eztaukat ortarako gogorik. Al neikenik eta argien itzegingo dautsut. Iru egun barru, esan dautsut, ogeta amairu urte beteko dodaz. Neure gaztaroaren azkenari agurra izan diranik ez uste izan e. Aldi au niretzat guztiz garrantzitsua da. Beste gizonentzat ogeta amairutik ogeta amalaura ioate au ezer ezta; zenbakia aldatu ta aurrera. Niretzako osterá une au oso astunada. Ogeta amairu urte, aldi sakratua zerutarra, adin betea da niretzat. Nire ustez urte orretararte gizontasunik erakutsi eztauanak milla urtean bizi balitz be, eleuke ezer aundirik egingo. Etorkizunrako zer aundirik, edo euren buru argia, ogeta amairu urte bein beteta, erakutsi eztaben areik, egin bear berezi ta ikaragarri bat dauke. Jesus, ogeta amairu urteko zala il eben. Opari bikaiña ta betea egiteko sasoiá auxe dok. Gizonari arima emoteko adorerik izan eztauanak, gixienez bere bizia emon bear dau. Ni, egoera onetantxe arkitzen naiatzu. Besteak baiño zerbait aundiago egitekotan nengo urteak zear, ta gaur arte itxaso kezkat6su orretan murgildurik naukazu, egin bear ori aurerago egiteko asmoz. Orain galdurik nago, ta guztiei nire ezetza ioake. Ene izakera baldar au azpikoz gora iartzera noia. Norbaitegaitik opalduko nok neu be, orrela nire iaiotzan baiño zori obekoa izango nok. Ondo entzun eidak euri buruz baidiarduat. Ire lekuan eta eugaitik ilko ioat nire burua; ire bizitza salbetako, neurea emongo ioat. Esanda daukatzut gizonetan, zugan bakarrik iarri dot neure ustea. Nik neuk ezelan be egin eziñekoa zuk zeuk egitea zannire asmoa azken aldiotan. Ni eldu ez nazan ara zu eltzea. Andi aziak eta aldiak dozuz batzuetan, bestien-gandik guztiz bereizten zaituenak. Zugan iarri neban ustea, ondiño eztoz galdu, diñotena ta itxaroten dodana ulertu gura e zpadozuz be. Zure bizikera ez iat atsegin aspaldi onetan. Eztozu irakurten, eztozu lanik egiten, billa be etzartoz.

Tentelakaz alkartu zara ta idazten dozuna otza ta bioatzbakoa da, ganarkeri utsa. Orain mendira ioaten etzaitut ikusten andra askogaz zabizana ba-dakit osterá; orain bakarrik etzaitut arkitzen, sunda-lekutik iges egin oi dan lez iguingarri diran gizonen artean bai osterá. Orain zeu etzaitut zeu; ego apurtuen antzera asmo bikaiñak iausi iatzuz, irabaztera zoaz orain on egitera barik; ondo egotera bikaintasunera barik. Iñoi z ez dautsudaz olakoak ain gartezan amalagarren alegiña egitera noa. Edozelan be etzi ilteko naz, baiña zeugaitik ilten nazala iakizu. Bizitza larregi maite dozu, ez daukazu ilteko adorerik. Zeure lengo izatea ta zeunkan elburura, oraingo illetan daroazuz beerakadaren ostein, gogoratuko bazenduz il egin bearko zeunke, baiña ba-dakit olakorik egingo eztozuna. Neu farriko naz zaure lekuan, zure obenak be neure bizkarrean artuko dodaz. Zeure buruaz ain ardura gitxi daukazula geiágo ezin ikusirik, egin bear zeundkana, baiña ortarako ausardirik ezaz egin barik itxiko dozuna egitera noa. Zure arimari astiñ-aldi bat emon ta barriro itxartuaz eriotzara-arte aldatzeko usteaz ilten nok. Opari barik eta odol barik eztago ezer lortzerik. Zugaitik opaltzen naz; zure aunditasunarren ixurtzen neure odola.

Jesus bere ogeitamairu urteetan lez ni be gura dotalako noa azken-ordura. Jesus gizon guztiokaitik, guztiok salbatzearren il zoan; ni neu Iainkoa enok eta, bakartxo bat gaizkatzeko ilko nok. Baliteke nire usteak ustel urtetea; bear bada neure eriotzaren zartadak be, etzaitu zagozan ondamentitik aldenduko; zeurea-lengo izatea-aurkitzera eroango.

Baiña azkeneraiño aurrera egin gura dot. Ain beian zu ikustearen samiñaz eta len zeunkan elburura begira zu iartzeko itxaropenaz maite zenduan norbait eriotzara ioan dala iakin daizunean, eztozu orain ain lasai barre egigo ziurki. Enabil txantxetan. Egun bi barru iakingo dozu, olgetan nenbillen, ala gizon batek beste bati emon legikeon maitasun ezaugarriak aundiena emon dautzudan edo ez.

Aren ekiña eneban atertu arazi oraintzerarte, alan be batzuetan irribarreka kokolo antzera besterik eziñez nengoan, a entzun-da. Neuk be zerbait esan gura neban baiña. Egoerarik astunenetan be bidezki iokatzea astu eziña iat.

Parkatu, esan neutson, azpikeri apurrez, eztoz ulertzen ondo, zerbait egitera ni bultzatzeko ilten zaran, ala zeu ezer aundirik egiteko gai izan etzeralako. Azkenengo augaitik balitz, eztaukat zetan aldaturik, ez zertzaz lotsaturik; lenen esandakoagaitik balitz itxarongo dot iaso leikena, benetan itz egin badozu.

Egungo eneban esango! Nire lagunak, begiratu egin barik, kapela ipiñi ta nigandik igeska ioian, noizean bein surzapiaz batutako eskua eragiñaz. Atzetik ioatera nengoan, baiña illunabarra zan ta laiñoak inguruak artuak ebazan. Zoritxarreko gizajo a zoroantzean ariñeketan ioian, gizon nekatuen eran narraska. Alako baten biurrune baten galdu neban, eztaikit nun sartu zan.

Esandako eguna ioan zan, ta barriro ikusterik ez dot izan.

GARITAONAINDIA TAR GOTZON (+)  
(ITZULPENÁ)

## AKULLU ZIRIKADAK

Iru eratako zirikalduak izaten ditu gizonak:

Lenengokoak: animalien erako tentaldiak: jan da eran, griña guziak ase, lo ta atsedendu...

Bigarrenak: giza-erako tantaldiak: nor bere burua jaso, arropustu... espirituaren atsegiñak.

Irugarrenak: Yainko erako tentaldiak: besteai agindu, menpean euki, gure gogoa besteiri ezarri...  
\*\*\*

### JAN DA LO

Lenen maillako tentaldi aragitik datozkio gizonari... Aragiak ba'ditu bere betebeharrak. Gorputza biziko bada, jan eta eran egin bear... Lan egiten ba du. loa bearrezkoa zaio...

Gizadiak lurraren gañean iraungo ba'du, eta emeen arteko artuemanak, bearrezkoak dira...

Bearkizun oietatik datozte gizonaren tentaldi batzuek...

Baña gizonaren azken elburua ez da jan da lo ta lizunkeria murgiltzea...  
\*\*\*

### "OLOA BURUAN..."

Besteak arritzea zein atsegin zaigun!

Barruko atsegin ori ez da animalien bearra, baño bai gure gogoarena... Orretan gorputzak atsegiñik artzen ez ba du ere, bai artzehn du gure giza-gogoak...

Besteen gureganako iritxia bai inporta zaigula! Maite degu gure izen ona! Lagun-urkoak arpegira intsentsua botatzen digunean (naiz eta gezurretan ari) pozezko toxrabioa sortzen zaigu barnean...

Burua azitzen zaigu leertuarlean.

Arroputzen gera parre-garri.

Gizon aundienak ere ume biurtzen dira, gaitz onek jota. Zoro batek iartzeko moduan, umetu ere.

"Oloa buruan ta ibilli buruan".

Zenbat olo gure buruetan!

Gaitz ori ikusten gaitza da guretako bakoitzarentzat; oso zailla da. Baña besteentzat ez da zail. Errez ta garbi ikusten dute gure arrokaria...

Or goaz, burua globoa bezin poztu, mundu guziaren parre-garri...  
\*\*\*

### KATUARI, ZAPI!

Gure barruan animalia bakarrik ba'lego, ezkurrekin aseko giñake... Baña besterik ba'da gure barruan animalia baño...!

Nagusi izan nai degu.

Besteai agindu.

Besteak menpratu.

Yainko txikiak izan nai...

"Bai (esango diazu), gaitz ori politikoena da".

"Ez (erantzungo dizut), ez da politikoena bakarrik gaitz ori.

Bakoitzak bere ingurukoekin, politikoak bezela jokutzen degu...

Diktadoreak ez daude Guatemala'n bakarrik... Bakoitza, geu Bera naiko diktadore...!".

Agindu.

Menperatu.

Gure gogoa besteai ezarri.

Ori egiten dezu lantegian, ofizinan, negozioan, aiuntamentuan, tabernan, azkenik, etxean...

"Kalean uso, etxean otso".

Zenbat aldiz gertatu...!

Iñor zeñen agintzerik ez degunean... katuari, zapi!

### TIMOIA

Ikusten dituzu itxasontziak uraren gañean?

Timoi edo lema txiki batekin zuzentzen dira ontzirik aundienak ere.

Itxarsontziaren gobernu guztia timoiaren eskuetan dago.

Lema txiki baten eskuetan.

Lema txikia izan arren (burni edo egur pusketa bat) itxasontzi trasatlantiko aundiena berak, nai bezela, erabiltzen du...  
\*\*\*

Gizona aundiena ere bere mingañoak erabiltzen du.

Mingaña da gizonaren lema.

Mingañoak esaten du gizona nolakoa dan.  
\*\*\*

### OTZ-BERO

Otza da mingaña, elurra baño otzago.

Mingaiñ txikiak bere eztena sartzen ba dizu, galdua zera...

Ziraunaren koskara baño atxarragoa da mingaiñ gaiztoa...

Beroa da mingaña, sua baño berogo.

Onaren iturria da mingaña: onetzi, bedeinkatu, barkatu. bizkortu, lagundu, konsejatu, animatu, goratu, indartu...

Jaunaren Berri ona (beraren Itza) gizonaren mingaiñetik datorkigu...

Mingaiñaren itzak dira maratil eta giltza...

### OLLO LUMAK

Madarikatzea, gizki-esatea, gezurra, iñoren izen ona urratzea... oiek ere mingaiñetik datoztenak dira.

Izen ona gezurretan urratzeak ba dakazki bere ondorenak: gaizki egiña zuzendu bearra, alegia.

Baña ori gauza zalla izaten da: ollo lumak aizetara botatzen ba dituzu, zeñek berriro bildu lezazke?  
\*\*\*

Uretara botatzen dezun arriak, urgañeko azalean, arrastoak egiten dituan bezela, zure itzak ere bere arrastoak uzten ditu...

Nolako itzak, alako arrastoak...

Itz gaiztoak, arrasto txarrak.

Itz onak, arrasto ederrak.



---

# "KIRIKINO". IDAZLE BIZKAITARRA. BATUAN

---

Uztaillaren 25'ean 1993 DEIA egunkariak, bere "Eguna" saillean Kirikiño'ren kontu au dakar: BELTZ EUSKALDUNA AFRIKAN, J.M.M. jaunak izenpetua.

Onala dio lanari asiera ematean:

"Gaurko kontaketa ez da nik asmatutakoa, "Kirikiño" euskal idazle bizkaitar zenaren bere "Abarrak" ipuin eta kontakizunen liburu jatorratik hartua bai-zik. Izan ere, 1918gn. urtean argitaratu zen Bilbon, eta hizkuntzaz, bizkaiera herritarraz idatzia... Guk oraingoan, ostera, gaurko irakurleentzat euskara batuz ipini eta eskaintzen dizuegu, egilearekiko zintotasun zehatza barkatuko dizuelakoan..."

\*\*\*

Jokabide ori, idazlearen eskubideak zapaldu eta barkamenik ez duen, okerkeri bat da.

\*\*\*

Idazlea, edozein motako artista batek bezala, lan bat sortzen duenean, lan orren jabegai da: Lan osoa, bere mota guztiekin, berea bakarrik da. Lana berak idatzi du, berberak nai izan duen eratan: bai izkiak erabiltzeko eran, bai idazkera edo estiloan...

Iñork ez du bere kasa oiek aldatzeko eskubiderik.

Baña, gaurko egunez, tamalez, indarkeria Euskera arloan nabarmen ikusi degu Batasunaren jokabidean. Indarkeriz sortu zan eta indarkeriz ezarri zuten euskaldunen lepoetan eta, bizi nai ba'dezu, artu bearko dezu zeure sorbaldan. Ez daukazu beste irten-biderik.

\*\*\*

## IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko area. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Kirikiño'ren lanak lendik ere ikusita ditut Batasunez jantzirik; baña, orrek ez du iñortxo arritzen. Ikusi nai neuke Picasso edo Miro'ren margo eta marrazkiak, iñork aldatuko ba'litu ikastoletako umeen lanen antza dutelako, zer zarata aterako lutekeen batek baño geiagok! A bai, Kirikiño, ordea, ez da Picasso ezta Bizkaiera Batua re. Batua Picasso'ren neurrian dabil, eskubide guztiak berekin dituela; baita Bizkaierarenak ere.



Arazo onek, berez, ez luke orrenbesteko inportantzirik izanbear; baña, barruko gaitz baten azalpena danez, bai, badu garrantzia, eta ez txikia.

ARRINDA' TAR ANES' EK.

=>=<    =>=<    =>=<

## EUSKALDUN BARRIENTZAT

8 EZBERDINTASUNAK AURKITU BEAR DOZUZ!



Patxi gizajoa, etxetik urrun joan da, orain bear dan bidea aurkitu eziñik dabil. Afaldu barik ogera joango da, erakutsi eiozue bide egokia!

•xnuin KI •g  
•teq nxtnd.zn •L  
•voxTdzu nIn.zd .9  
•Intolog •c  
•unaln)l solnz o)luzluaznzn  
•renum ueaw £  
•uziluq olnzaX •Z  
•ezlleq ota? .1

## MISTERIOZKO UGARTEA

### BIGARREN ZATIA

Iru ordu geroago. Amabiak ziran. Barriro be goronbilia jausten asi zan.

"Eta zer botako dobu orain? esan eban Spillet'ek deadarka. "Zer -edo -zer egin bear dogu goronbillari igon-erazoteko. Ia ia itxasoan gagoz... Ba goaz uretara!

Harding'ek txonbo egin eban saretik itxasora. Beste orrenbeste egin eban txakurrak be, aen atzetik. Goronbilla-gizon bat eta txakurra gitxiago ebazala-gorantza asi zan ostera be.

Ugartea orain urre-urre egoan, baña goronbilla beera ta beera. Lurra ikutu eban. Ikutu eta igon apur bat. Barriro be lurra jo eban... Orduan iru gizonak eta mutillak salto egin eben. Goronbilla gorantza asi eta zeruan galdu zan.

KARMELE

---

## ANES EZ DA ANE

---

Arana-Goiri'tar Sabin'ek atera zuen bere garaian Euskal Izendegi bat. Santuen izenak ziran euskera-antzeria ipiñita. Esate batrako: Anastasio Anastasi.

1972'garrenean J.M. Satrustegi'k beste bat Euskal-erri'ko idaztietan arkitzen direnak.

Gaurko egunez, berriz, Izaki osoaren izenak jarri dizkiete gurasoek euren umeei: Aizea, Itsaso, Lur, Arri, Arkaitz, Ibai eta bestelako izen xeble guztiak. Orretan askatasun oso-osoa dago bai Elizaren aldetik eta bai Udal-etxeen aldetik; baña, ni orain 81 urte jaio nintzanean ez zan orrelakorik: Elizako santuen izenak bear ziran, nai ta nai ez.

\*\*\*

ANES izena lekittarrek erabiltzen zuten eta oso zan ezaguna Lekeitio'ko kaleetan 1912'garren urtean, Eustakio'k bere lenengo aurra izan zuenean. Berau Sabin'en jarraitzalea zan eta bere semeari euskal izena ipiñi nai zion. Itz egin zuen bere emaztearekin eta, Anastasio'ren orde (nere amaren aita), ANES ipintzea erabaki zuten.

Joan zan Eustakio eleizara eta ori ez zala santuen izena, bota zion aurpegira txanburuak. Andik Udal-etxera abiatu zan; baña, alperrik. Emen ere berdin erantzun zioten: Ori ez zala ume bateri ipintzeko izena.

Eustakio'k, ordea, bere astuari arre: Au neure semia dot eta neuk nai dodan ixena ipiñikotzat. Baita ipiñi ere: Sekulan, jaio nintzen egunetik eurok il ziran egunerarte, neure gurasoen agotik ez det ANES beste izenik entzun. Nere senitarte guztian ez zekiten nik beste izenik nuenik ere. Bada gure artean Anastasio bat (Albisu Ayerdi), ni baño iru urte gazteago, eta izen ori berak eraman du beti, nik neurea eraman dedan bezala.

Nik paperak bear izan nituen artean, ez nuen jakin neure paperetako izena ANASTASIO (ANASTASI) zanik ere. Apaiztu ninduenean, Meza berriko txartel-letan Anastasio izena ikustean, arriturik galdetzen zidaten: - I ez al aiz ba Anes?

\* \*


Nere izenaren okerkeriak ez dute amairik. Orain ogei urte inguru, Anes Lazkauko ezizenakin lanak argitaratzen nituenean, nere OTO TA POTOTO'tik, txiste bat aukeratu zuen irakurgai Zarautz'ko Ikastolak eta izena ANE biurtu zidaten: Ane Lazkauko. ZER, gure aldizkari jatorrean ere, aldi batean Ane Arrinda izenakin zuzentzen zidaten ale bakoitza. Eusko Jaurlaritzak bialtzen dituen BERRIPAPEREA oietan ere ANE ARRINDA nintzan. Zuzentzeko esan eta gauzatxo batzuek zuzendu zituzten, baña izenik ez, ANE ori or zegoen zutik. Bigarren mezua bialdu nien; alperrik. Irugarrenean Anes izenari, "apaiza" irantsi nion eta oar auxe: Zalantzarik ba'dezute galdetu Mari Carmen'eri, izen orretxekin eza-gutzen nau aspaldiko urteetan. Irugarrenak balio izan zuen. Okerrak ez dute etenik: TXO, itxasgizonen aldizkarian, nik idatzitako Lekeitio'ko kanta batzuek artu dituzte gure EUSKERAZAINTZA aldizkaritik, eta berriro, ANE ARRINDA...

Onek ez du amaierarik. Orrelako izen aldrebesa al da ANES? Bada izen orrekin mutiko bat Deba onetan eta bere amari galdetu nion, zergaitik ipiñi zion Anes izena bere semeari. Euskal buruzagiren bat ote zan edo, erantzun zidan; baña, gauza garbirik ez zekien. Erruki diot. Nik eskari au: Nere giza-izakia ez aldatu, mesedez. Emaztekiak izaki xarmantak dituzu; baña, ni ez naiz emaztekoa.

Ekainillak 26.1993.  
ARRINDA'TAR ANES

=>=<    =>=<    =>=<

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA